

## Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak diplomak eman dizkie Oñatiko kanpuseko graduoko eta graduondoko ikasleei.

2011/06/04

**Oñati, 2011ko maiatzaren 27a.** Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak maiatzaren 27an, ostiralez, Oñatiko kanpuseko 73 ikasleri titulu akademikoak eman zizkien. Horietako 48 graduatuak izan ziren; zehazki, Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan Lizentziaturan ikasketak eta Zuzendaritzako Idazkaritzako ikasketak amaitutakoak. Gainera, beste 25 ikaslek graduondoko titulua jasoko zuten, Enpresa Zuzendaritzako Masterrean (MBA) eta Kirol Entitateen Kudeaketan eta Zuzendaritzan Aitua Ikastaroan. Diploma-banaketa 18:00etan izan zen Oñatiko kanpus berriko Auditorioan.

Ekitaldi akademikoan, Enpresagintza Fakultateko dekanok Lander Belokik eta RocaSalvatellako bazkide zuzendari Genis Rocak hartu zuten parte, eta azken horrek *“Sareen garaiari buruzko sei gogoeta”* hitzaldia eskaini zuen. Amaierako ekitaldiaz Mondragon Unibertsitateko errektore losu Zabala arduratu zen.



Ekitaldiko argazki gehiago ikusteko:

<http://www.flickr.com/photos/enpresagintza/5776497168/in/set-72157626618417965>

Eta berri honen notizia Diario Vasco-n:

<http://www.diariovasco.com/v/20110531/alto-deba/primeros-diplomados-nuevo-campus-20110531.html>

Goiena-n:

<http://goiena.net/albisteak/diplomak-jaso-dituzte-ikasketak-amaitu-dituzten-enpresagintzako-ikasleek/>

Mondraberrin-n:

<http://www.mondraberrin.com/mondraberrin/contenidos.item.action?id=9221523&menuId=3023725&onlypath=true>

Laster bideoa ere izango dugu ikusgai vimeo-n:

<http://vimeo.com/enpresagintza>